

MUSIKA ETA DANTZA

PINTZELKADAK

XVI. mendea Beasaingo Elizan



Abiapuntua

2022an Beasaingo Andre Mari Jasokundearen elizako erretaula nagusia konpontzeko desmuntatu zenean, atzeko horman Errenazimentu garaiko horma-irudi jatorrizkoak agertu ziren (XVI. mendea). Pintura horiek 2023-2025 bitartean zaharberitu dira eta balio handikoak direla ikusi da. 1555eko kontratuaren arabera, Joan Perez Landako “elizak pintzelatzeko maisu” nafarrak eginak dira.

Dantza alorrean egin diren azken ikerketek euskal dantzen eta Errenazimentu garaian Europa guztian zabaldua zegoen dantza jasoaren arteko harremana baieztatu dute. Gipuzkoako dantza-maisuek oinordean transmititu diguten dantza-sistemak erro sakonak ditu Errenazimentuko europar eskola-dantzekin, eta oso ariketa interesgarria da ideia hori praktikan jarri eta hizkuntza dantzatuan plazaratzea, gaur egingo dugun moduan.

Horrez gain, orduko eta gaur egungo musikaz apainduko dugu kontzertu koral hau. Beste era batera esanda, sasoi hartan (XV.-XVI. mendean), Beasaingo elizaren margoak pintzelatu ziren moduan, zer dantza eta musika, eta nola dantzatzen ziren “pintzelatzen” saiatuko gara.



Parte-hartzaileak

Zuzendaritza: Carles Mas i Garcia

Koordinazioa: Xabier Sarasola, Mikel Sarriegi

Beasaingo Musika Eskolako Orkestra (zuz. Xabier Zeberio)

Loinatz Abesbatza (zuz. Aitor Garitano)

Aurtzaka dantza taldea (zuz. Mikel Sarriegi)

Musikariak:

- Aitor Alvarez (txistua)
- Carles Mas (flabiola)
- Guillermo Pérez (organettoa)
- Arantxa Gastesi (pianoa)
- Martin Kortaberria (bibolina)
- Xabier Sarasola (biola)
- Xabier Zeberio (nyckelharpa)
- Markel Zeberio (Biolontxelo)

Laguntzaileak



Beasaingo
Udala



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



dantza
gunea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Sortutakoak Tradizionala 12



Beasaingo
LOINATZ UDAL
MUSIKA ESKOLA



Loinatz
abiesbatza



Egitaraua

Dantza edo musika	Bertsioa
Stabat Mater	Xabier Sarasola
Meza	Steve Dobrogosz
Alemanda	D’où venez-vous, madame Lucette?
Pavana italiar-frantsesa	La morte della ragione
Kailarda	La traditora
Pabana iberiarra	Pabana (Martin/Mas mold.)
Una mossa de Biscaia (ballettoa)	Josquin des Prez 1475-1485 / Guglielmo 1510
Bransle gentil (balleta)	Praetorius 1612
Dantza-xeha edo Bajea	La navarroise 1497-1501
Saltarintxo	La navarroise saltarello 1497-1501
Con amores la mi madre (balleta)	Joanes Antxieta 1480-1500
Mille regretz	Josquin des Prez
Les Bouffons (makila-dantzak)	Thoinot Arbeau 1588
Alemanda	D’où venez-vous, madame Lucette?



Stabat Mater

Musika: Xabier Sarasola

Abesbatzaren eta pianoaren laguntzaz, Elizako margoetan irudikatuta dagoen Ama Mariaren sufrimenduari buruzko gogoeta musikatzen da.

Mass (Meza)

Musika: Steve Dobrogosz

Jazz, pop eta klasikoaren konposatzaile den suediar-estatubatuarren Meza ezagunaren Introitus, Kyrie eta Agnus Dei-k osatuko dute zati hau.

Pavana italiar-frantsesa eta Kailarda

Musika: La morte della ragione eta La traditora

XVI. mendeko Italiako edo Frantziako pavanek eta kailardek prozesioetako dantza-generoen lekukoa hartu zioten gainbeheran ziren basse danse eta haute danse delakoei. Pavana izaera xehe edo baxukoa da eta Kailarda, aldiz, XVI. mendeko dantza altu edo saltatu nagusia. Egitura horrek Juan Inazio Iztuetaren dantzen sisteman Kontrapasek eta Zortzikoek osatzen duten bikotearen parekide egiten ditu.

Pabana (iberiar dantza-maisuena)

Musika: Pabana (Martin/Mas mold.)
Koreografia: Carles Mas (Tarragó-ren Hospital eskuizkribuan oinarritua)

Pabana honek egitura eta tempo berezi bat du, Pavaniglia edo Pavane d 'Espagne ere deitua, eta pabanen inprobisazioa ikasteko oinarria da, sarrera/mudantza/kadentzia formaren barruan askotariko mugimendu-unitateak erabiliz. Penintsulako maisu guztiek pabana iberiko espezifikoko honetarako aldaira edo mudantzak egiten zituzten.

Pabanaren Euskal Herriko erreferentzia dokumentatuak edo testu-aipuak ziur aski maisuek transmititu, sortu eta inprobisatutako pabana horren mudantza birtuosoen memorizazioari buruzkoak dira. Horrelakoa izango zen, ziur aski, Lazarragak 1567-1602ko poeman aipatzen duen “Pabanea”, garaia harekin bat egiten baitu. Eta gainera, dantza modu hori egokia zen gizarte mailan eskoletan ikasteko eta batzuetan jendaurrean dantzatzen jakiteko, komunitatean existitzeko, azken batean. Herri-tradizioko dantza askok gorde dute antzeko egitura eta funtzioa, eta egungo Aurresku edo Erreberentziaren moduko dantzen aurrekaritzat jo ditzakegu.



Bransle gentil balleta

Musika: Praëtorius (1612)
Koreografia: Carles Mas (T. Arbeauren Orchésographie jarraituz, 1588)

Aldaera anitzeko dantzak dira branleak (double, simple, coupé, de Poitou, de Bourgogne, gay, morgué, etab.) eta gizarte maila guztietan dantzatu izan dira. Burgundiako eta Frantziako tradizioan soka kateatuta modu irekian edo itxian kolektiboki egiten den dantza genero nagusia da. Euskal Herriko borobileko dantzekin daukan egiturazko antzekotasunak nabarmenak dira, eta bransle coupéak bereziki Iparraldeko dantza-jauziekin senidetzen dira.

Dantza-xehea edo Bajea eta Saltarintxo

Musika eta koreografia: La navarroise, “Les Basses Danses de Marguerite d'Autriche”, ms. 9085, Bibliothèque Royale Albert I, Brussels (c. 1495-1501)

Brussels eskuizkribuak bassa dansa eta saltarello Errenazimentuko dantzaren genero nagusiak jasotzen ditu, Euskal Herriko zein beste kultura europar batzuetako ahozko eta folkloreko tradizioan txertatuta dagoen dantza kolektiborako egitura dinamiko kontrastatua, alegia, ezagunak ditugun Bernat Etxepareren Kontrapas eta Sautrela, kasu. Lazarragak ere jakinarazi zigun “Bajea” gure lurraldean ikasten zela XVI. mendean.

Con Amores la mi madre balleta

Musika: Joanes Antxieta (Chilcott mold.) 1480-1500
Koreografia: Carles Mas; Domenico da Piacenza maisuaren “De arte saltandi et choreas ducendi”ko (ca. 1445) Verçepe ballettoan inspiratua.

Abesbatzaren ahozko interpretazioaren gainean dantzatua, Antxieta urrestildarrak Errege-erregina Katolikoen seme-alaben kapera-maisu zenean konposatutako kanta famatua da.

Antxietak Domenicoren dantza-maisu dizipuluak ezagutu ahal izan zituen, Guglielmo kasu, Napoliko Katalunia-Aragoiko gortean XV. mendearen amaieran, edo beste dantza-maisu batzuk Flandrian edo Burgundian. Antxietak Gaztelako errege-erregina katolikoen seme Juanen gortean zerbitzatu zuen (1478-1497). Juan 1497an Austriako Margaritarekin ezkondu zen, eta ondorioz, baliteke aurretik aipatu dugun Margaritaren liburutegiko dantza xeheen eskuizkribu bikaina ezagutzea, bertan jaso dagoen Navarroise dantza barne.

Con amores, la mi madre,
con amores me dormí,
así dormida soñaba
lo que el corazón velaba
que el amor me consolaba
Con más bien que merecí.

Una mossa de Biscaia ballettoa

Musika: Josquin des Prez (1475-1485)
Koreografia: Guglielmo Ebreo da Pesaro/Giovanni Ambrogio (1510).
Berreraikitzea: Carles Mas (Barbara Sparti-ri 1932/2013 esker)

XV. mendeko tradizioko ballo edo balletto bat da, eta berezia da musikak euskarazko testu-aipu zaharrenetako bat duelako. Hainbat aldaera polifoniko ditu, ziurrenik abesti herrikoi bat izan zenaren gainean osatutakoak, eta iturri koreografiko bakarra ezagutzen denez, hura osatu dugu. Orain 500 urtez geroztik jendaurrean erakutsi gabeko dantza da, seguru asko, eta zaharberritze honetarako berreraiki dugu.

- | | |
|---|--|
| 1. Une mousse de Biscaye,
L'autre jour pres ung moulin,
Vint à moi sans dire gaire,
Moy hurlant sur mon chemin,
Blanche comme un parchemin,
Je la baisé a mon aise;
El me dist sans faire noise:
<i>Soaz, soaz, ordonarequin!</i> | 1. Bizkaitar neskata bat,
nireganatu zen aurreko egunez,
ezer asko esan gabe,
neu bidean oihuka,
zuria, pergaminoaren pare,
plazer handiz musukatu nuen;
eta esan zidan lotsagabe:
«Soaz, soaz, ordonarequin!» ¹ |
| 2. Je luy dis que de Bisquaye
J'estoys son prochain voisin:
'Mecton nous pres ceste haie
En l'ombre soubz l'aubepin:
La parlerons a butin,
Faictes tout a ma requeste!
Lors feist signe de la teste:
<i>'Soaz, soaz, ordonarequin!'</i> | 2. Esan nion Bizkaitik
hurbileko bizilaguna nintzela:
«joan gaitezen sasi horretara
elorri horren gerizpera:
Han hitz egingo dugu presarik gabe
eta eskatu ahala egingo duzu dena!»
Buruaz adierazi zuen, ordea:
<i>«Soaz, soaz, ordonarequin!»</i> |
| 3. 'Par mon serment, vecy raige!
Ce n'est françoys ne latin:
Parlez moy aultre langaige,
Et laissez vo bisquayn!
Mectons no besongne a fin,
Parlons d'amours, je vous prie!
Lors me dist, n'en doubtez mye:
<i>'Soaz, soaz, ordonarequin!'</i> | 3. «Zin dagit, amorratu nintzela!
Ez dela ez frantsesa ez latina:
Hitz egidazu beste hizkuntza batez,
eta alboratu zure euskara!
Amaitu dezagun lana behingoz,
Amodioaz aritu gaitezen erregutzen dizut!»
Esan zidan orduan, zalantzarik gabe:
<i>«Soaz, soaz, ordonarequin!»</i> |
| 4. Avoir n'en peuz aultre chose,
Par ma foy, a ce matin,
Fors baisez a bouche close
Et la main sur le tetin:
'A Dieu, petit musequin,
A Dieu soyez, ma popine!
Lors me dit la bisquayne:
<i>'Soaz, soaz, ordonarequin!'</i> | 4. Ez nuen lortu besterik,
zinez, goiz hartan,
musukatzen duzu erruz, ahoa itxita
eta eskua titian:
«Agur, xagutxo txiki,
Zoaz Jainkoa lagun, bular desiratu!»
Eta esan zidan orduan, bizkaitarrak:
<i>«Soaz, soaz, ordonarequin!»</i> |

(1) Gaur egungo grafiaz: Zoaz, zoaz, ordu onarekin!



Mille regretz

Musika: Josquin des Prez (1475-1485)

“Mila atsekabe zu abandonatzeagatik...” Karlos V. enperadorearen kanta gustukoena omen zen.

Les Bouffons makila-dantza

Musika eta koreografia: Thoinot Arbeau (1588)

Errenazimentuko dantza historikoaren ikuspegi oso batean ezin falta da *alteritatearen*, arrotzaren, exotikoaren... irudikapen sublimatuaren dantzen genero koreutiko zabalaren adibide nabarmen bat. Beste era batera esanda, moresken, morisken edo konbate eta borroka inizatikoaren generoa, bere modu dibertigarrienean: Les Bouffons (bufoiak) da mendebaldeko dantzaren historian ezagutzen den lehen adibidea, makila-koreografia edo ezpatekin borrokatzeko entrenamendu-dantza batena. Ezpata-dantzak, makilak, makil-jokoak, zintzarriak, arkuak eta batez ere, zintzarri-dantzak... Errenazimentuaz geroztik behintzat, Euskal Herriko, Kataluniako, Gaztelako... herri-dantzaren tradizio ugarietan oso txertatuak daude, tokiko transmisioa eta borroka erritmikoaren sinbolismoa integratzen duen eta herri-dantzan sublimatzen duen komunitate baten funtzionaltasuna indarrean dauden tradizio guztietan.

Thoinot Arbeau-ren *l'Orchésographie*-ko koreografiaren gainean eraikia, geroago *Fricasée* generoaren abiapuntua izan zen eta gaur egun, harrigarriro, ia 500 urte geroago, Beasaingo jaietako Mariren jaitsieran erabiltzen den Sorgin-dantzaren doinuarekin kidetuta dago. Aurkezten dugun bertsio historikoaren musikak, beraz, bost mende ondoren ere hainbat makila- eta moriska-dantza mota antolatzen dituela nabarmendu behar da.

